



5.3 DIRULAGUNTZA LERROA: ERRENTERIAKO IKASTETXEAK. ESKOLA KIROLEKO KUDEAKETA ETA ARRETA (BENJAMIN, ALEBIN, INFANTIL ETA KADETE KATEGORIAK) – 2021. OINARRI ESPEZIFIKOAK.

LÍNEA DE SUBVENCIÓN 5.3: CENTROS EDUCATIVOS DE ERRENTERIA. GESTIÓN Y ATENCIÓN DEL DEPORTE ESCOLAR (CATEGORÍAS BENJAMÍN, ALEVÍN, INFANTIL Y CADETE) – 2021. BASES ESPECÍFICAS.

1- Dirulaguntzaren xedea.

Lerro honen xedea da dirulaguntzak ematea, hain zuzen ere, Errenterian kokaturiko ikastetxeek eta ikasleen guraso-elkarteek (IGE) eskola kirolerako kudeaketa eta arretarako beharrezko dituzten egitura espezifikoak finantzatzea, 2020-2021 denboraldikoak, hau da, 2020ko urriaren 1etik 2021eko ekainaren 30 bitarte egindakoak, benjamin alebin, infantil eta kadete kategorietarako. Horrez gain, horien helburuek bat etorriko beharko dute Udalaren Kiroletako azpisailak dituenekin.

1- Objeto de la subvención.

El objeto de esta línea es la concesión de subvenciones para la financiación de estructuras específicas para la gestión y atención del deporte escolar, organizadas por centros escolares y asociaciones de padres y madres (AMPAS) radicados en el municipio de Errenteria durante la temporada 2020-2021, es decir, la temporada y actividades realizadas entre el 1 de octubre de 2020 y el 30 de junio de 2021, para las categorías benjamín, alevín, infantil y cadete y cuyos fines sean acordes con los objetivos de la subárea de Deportes del Ayuntamiento.



Kontuan hartuta Eskola Kirola Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumeneko gaia dela baina ekonomikoki Errenteriako udalak finantzatzen duela nagusiki, beharrezkoa da zehaztea zein kontzeptu kontsideratu behar diren diruz lagungarria den defizitaren barruan. Zehazki, diruz laguntzeko defizitaren barruan izango dira eskola kirola (benjamin eta alevín kategorietan egiten den kirola dela ulertuta) kudeatzeko koordinaziorako langileak kontratazeko eta begiraleen kanpo kontratazioa egiteko gastu zuzenak eta zeharkakoak (Gizarte Segurantzaren entitatearen kontura, nominen kudeaketa,...). Hori horrela, honela diruz lagunduko da: begirale eta hilabete bakoitzeko gehienez 300,00.- euro ordainduko dira, eta begirale bakoitzak gehienez bi ekipo izango ditu bere ardurapean edo kontratazio gehienezko denbora sei ordu astean izango da, lau ordu entrenamenduetara joateko eta bi ordu asteburuetan jokatzeko diren egutegi ofizialeko partidetak joateko; programan erabiliko den kirol materiala erosteko gehienez 300,00 euro talde bakoitzeko, eta eskola kirola programaren barruan izan litezkeen beste gastu zuzen batzuk.

Nolanahi ere, begiraleen kontratazioak Errenteriako udaleko Kirolak azpisailak zehazten dituen baldintzak bete behar dituzten hauei dagokienez: euskara maila eta ezagutza, adina (derrigorrez adin nagusikoak izango dira), formazio teknikoak (gutxienean kirol titulazioa izango dute) eta Eskola Kirola programa garatzeko garrantzi berezia duten beste alderdi batzuk.

2.- Dirulaguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren dirulaguntzen gehienezko kopurua.

Eskola kirolaren kudeaketa eta arreta programak kofinantzatzeko dirulaguntzen zenbatekoa 2021eko aurrekontuko ondorengo partidaren kontura izango da:

- 1.1530.481.04.341.30: Errenteriako Ikastetxeak.

Teniendo en cuenta que el Deporte Escolar forma parte de las competencias de la Diputación Foral de Gipuzkoa pero es sostenido económicamente de manera principal por el Ayuntamiento de Errenteria, es necesario delimitar los conceptos que se deben considerar dentro del déficit subvencionable. En concreto, formarán parte del déficit subvencionable los gastos directos e indirectos (Seguridad Social a cargo de la entidad, gestión de nóminas,...) de la contratación del personal de coordinación y contratación externa del monitorado para la gestión del deporte escolar (entendiéndose éste como el que se desarrolla en las categorías benjamín y alevín) con un pago máximo de 300,00.- euros netos al mes por monitor/a, y con un máximo de dos equipos a su cargo o con una carga máxima de contratación de seis horas semanales, cuatro horas para asistir a entrenamientos y dos para asistir a los partidos del calendario oficial del fin de semana, compra de material deportivo para ser utilizado en el programa con un máximo de 300,00 euros por equipo y otros gastos directos imputables al programa de deporte escolar.

La contratación del monitorado cumplirá en todo caso las condiciones que determine la Subárea de Deportes del Ayuntamiento de Errenteria, en lo que respecta a conocimientos y nivel de euskera, edad (deberán ser obligatoriamente mayores de edad), formación técnica (deberán estar en posesión de titulación deportiva mínima), y otros aspectos que se consideren de especial relevancia para el desarrollo del programa de Deporte Escolar.

2- Créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las subvenciones.

El importe de las subvenciones para cofinanciar programas de gestión y atención del deporte escolar irá con cargo a la siguiente partida del presupuesto del año 2021:

- 1.1530.481.04.341.30: Centros Educativos de



Eskola Kiroleko Kudeaketa eta Arreta.

Errenteria. Gestión y Atención del Deporte Escolar.

Diruz lagunduko den lerro honetarako dagoen aurrekontua 96.900,00.- eurokoa da.

La disponibilidad presupuestaria para esta línea de subvención asciende a 96.900,00.- euros.

Ondoren, egoki den kreditu aldaketaren bitartez partida horren kopurua handituko balitz, deialdi honi egozgarria izango den gastuaren baimentze berria egin liteke.

Si dicha partida posteriormente fuese ampliada en base a la correspondiente modificación presupuestaria, podrá autorizarse nuevo gasto imputable a la presente convocatoria.

Gehieneko zenbateko hori zenbatetsia da, emakida ebazteko unean kreditu egokia eta nahikoa egotean baldintzapean baitago. Kreditu hori dialdihau onartu eta hurrengo aurrekontu-ekitaldian izango da.

Esta cuantía total máxima tiene carácter estimado, puesto que está condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el momento de resolución de la concesión, que tendrá lugar en el ejercicio presupuestario siguiente al de la aprobación de la convocatoria.

2021eko aurrekontuan onartutako kreditua txikiagoa bada, ebazpen-proposamenak behera egin beharko du dauden kredituetara egokitze aldera.

En caso de que el crédito aprobado en el presupuesto de 2021 fuera inferior, deberá ajustarse a la baja la propuesta de resolución a los créditos existentes.

Dirulaguntzaren diru-kopuruak inoiz ezin izango du diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu, ez bakarrean harturik, ezta aldi berean beste dirulaguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edo baliabideekin harturik ere.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

3.- Pertsona onuradunak, dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatzeke era.

3.- Personas beneficiarias, requisitos para solicitar la subvención y forma de acreditarlos.

Oro har, dirulaguntzetarako aukera izan dezakete Eskola Kirola antolatzen parte hartzen duten Errenterriako ikastetxeek eta ikasleen guraso-elkarteek (IGE).

Con carácter general podrán optar a las subvenciones los centros escolares y asociaciones de padres y madres (AMPAS) radicados en Errenteria que participen en la organización del Deporte Escolar.

Eskaerarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Documentación a presentar con la solicitud:

Eskatzaileek, eskabidearekin batera, Errenterriako Udalak 2021. urtean diru-laguntzak emateko oinarri orokorretako seigarren oinarrian ezarritako dokumentazioaz gain, elkarte edo erakunde

Los solicitantes deberán presentar con la solicitud, además de la documentación establecida en la base sexta de las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de



eskatzailearen estatutuak aurkeztu beharko dituzte, aurretik aurkeztu ez badira edo aldaketaren bat izan badute.

Errenteria durante el año 2021, los estatutos de la asociación o entidad solicitante, si no han sido presentadas con anterioridad o si han sufrido alguna modificación.

4.- Eskabideak aurkezteko epea.

Eskola kirolaren ohiko kudeaketa eta arreta programetarako dirulaguntzen eskabideak aurkezteko epea irekiko da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean eta amaituko da 2021eko otsailaren 1ean.

4.- Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de las solicitudes de subvención para programas de gestión y atención del deporte escolar habituales estará abierto desde el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y finalizará el 1 de febrero de 2021.

5.- Eskabideak baloratzeko irizpideak.

Eskabideak baloratzeko irizpidea norgehiagoka izango da. Beraz, eskari guztietan ondoko irizpide objektiboak ezarriko dira:

5.- Criterios de valoración de las solicitudes.

El criterio de valoración de las solicitudes será el de concurrencia competitiva. Por lo tanto, en todas las solicitudes se aplicarán los siguientes criterios objetivos:

Helburu honetarako urtero onartzen den aurrekontu partidako kopurua onartutako eskaera guztiei emandako puntuen baturarekin zatituko da, jarraian agertzen den taularen arabera, eta horrela puntu bakoitzaren balore ekonomikoa kalkulatu da. Puntu bakoitzaren balore ekonomikoa hori eskari bakoitzak lortutako puntu kopuruarekin biderkatuko da, eta horrek emango digu jaso beharreko diru kopuruaren zenbatekoa, 2. puntuan adierazitako mugarekin.

La partida presupuestaria aprobada anualmente para este concepto se dividirá entre la suma de puntos otorgados a todas las solicitudes admitidas, de la manera que aparece en la tabla que sigue a continuación, y así se calculará el valor económico de un punto. Este valor económico de cada punto se multiplicará por los puntos conseguidos por cada solicitud, lo que determinará la cuantía a percibir, con el límite indicado en el punto 2.

ESKOLA KIROLEKO EGITURAK GARATZEKO	PARA EL DESARROLLO DE ESTRUCTURAS DE DEPORTE ESCOLAR
Talde kopurua (kategoriaren arabera) / Número de equipos (por categorías)	
• Benjamina / Benjamín (2011 / 2012)	Puntu 1 / 1 punto
• Alebina / Alevín (2009 / 2010)	Puntu 1 / 1 punto
• Infantil / Infantil (2007 / 2008)	Puntu 1 / 1 punto
• Kadetea / Cadete (2005 / 2006)	Puntu 1 / 1 punto

6.- Dirulaguntza ordaintzea.

6.- Abono de la subvención.



Dirulaguntzaren diru-kopuruak era honetan ordainduko dira:

- %60 dirulaguntzak esleitzeko ebazpenaren ondoren, aurrerakin gisa, eta aurkezturiko jarduera programa gauzatzeko baldintzarekin.
- %40 egindako gastua justifikatzeko dagokion dokumentazioa aurkeztu ondoren.

7.- Dirulaguntzaren justifikazioa.

Dirulaguntzaren bigarren ordainketa, diruz lagundutako programa edo jarduera justifikatzeko dokumentazioa aurkeztearen baldintzapean geratuko da. Justifikazio hau aurkezteko epe muga izango da: 2021eko ekainaren 30a.

Zehazki aurkeztuko den dokumentazioa honakoa izango da, Errenterriako Udalak 2021. urtean dirulaguntzak ematea arautzeko Oinarri Orokorren hamazazpigarren oinarrian adierazitakoaz gain:

- a) Programaren edo diruz lagunduriko jardueraren memoria zehatza.
- b) Diruz lagundutako programaren edo jardueraren dokumentazio grafikoa (kartelak, programak) edo ikus-entzunezkoa.
- c) Ikastetxeko Eskola Kirola programaren arduradunak sinatutako agiria, ikastetxeak kontratatu dituen begiraleek programan parte hartzeko euskarazko gaitasuna dutela adierazteko.

Ohar garrantzitsua: deialdi hau egin da Errenterriako Udalak 2021. urtean dirulaguntzak ematea arautzeko Oinarri Orokorrei jarraiki. Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da.

Los importes de subvención serán abonados de la siguiente forma:

- 60% tras la resolución de asignación de subvenciones, con carácter de anticipo, y condicionado a la ejecución del programa de actividades presentado.
- 40% tras presentación de la documentación correspondiente a la justificación del gasto realizado.

7.- Justificación de la subvención.

El segundo pago de la subvención queda condicionado a la presentación de la documentación justificativa del programa o actividad subvencionada, con fecha límite 30 de junio de 2021.

En concreto la documentación a presentar será la siguiente, además de la establecida en la base decimoséptima de las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2021:

- a) Memoria detallada del programa o actividad subvencionada.
- b) Documentación gráfica (carteles, programas) o audiovisual del programa o actividad subvencionada.
- c) Documento firmado por la persona responsable del programa de Deporte Escolar en el centro en el que se refleje que el monitorado tiene la capacidad lingüística exigida.

Nota importante: esta convocatoria deviene de las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2021. En todo lo no especificado aquí, debe acudirse a aquellas.



ERRETERIAKO UDALA
Kirolak

